

KAMIKAZ KOLEKTIBOA & TTAK TEATROA

HIRU KORTSE AZUKRE ASKO ETA B BRANDY GEHIEGI



AMANCAY GAZTAÑAGA - ERIKA OLAIZOLA - IRAIA ELIAS

KAMIKAZ
KOLEKTIBOA

TTAK
TEATROA

Kulturaz
Azpetiko Kultur Mahaiaren Kooperatiba



HIZKUNTZA: Euskara.

GENEROA: Komedia garratza.

FORMATUA: Aretoko ikuskizuna.

IRAUPENA: 70'

PUBLIKOA: Gazteak (14 urtetik gora) eta helduak.

NEURRIAK: 5,5m zabal / 4m sakon / 4m altu
(gutxieneko espazioa).

ESTREINALDIA: 2021eko urriak 31an, Azpeitian.

JARDUERA OSAGARRIAK: gaiarekin lotutako mediazio saioak
egiteko aukera ikastetxe nahiz kolektibo desberdinekin.
Kostu gehigarria adosteko eskariaren arabera.

Kontratazioa eta harremanetarako:
Goizane Barroso
636 90 67 37
kamikazkolektiboa@gmail.com





**“Nor naiz ni, zuk fikzionatzen ez nauzunean?
Nor zara zu, ni fikzionatzeko baimenik ez duzunean?
Izan gaitezke gu?
Zer desikasi beharko genuke, nola, nondik..”**

Emakume 1, emakume 2, emakume 3, kanpai hotsekin batera, puntual elkartzeko merienda mahai baten inguruan. Tisana, pasta, azukre eta pastelitoz betetzen dituzte gorputzak, beraien egunerokotasunaz hitz egiten duten bitartean.

Ba ote dakite, beraien bizitza beste norbaitek kontatua izan dela? Zein begiradatik izan dira sortuak emakume hauek? Nork idatzi du tinta lodiz historia? Historia kontatu diguten bezalakoa da?

Nork mugitzen ditu emakume hauen kortseen hariak?





“Fikzioak sortzen ditu gure ortzi-mugak”

Anonimoa (alegia, emakumea)

Inoiz pentsatu duzu zer eragin duen ikusten duzun fikzioak zure egunerokotasunean? erlazioetan? desioetan? zure iruditegiaren eraikuntzan? zure eguneroko erabakiak aske hartzen dituzula uste duzu? Edo fikziozko protagonistaren moduan idatzia izan zara? Eta idatziak izan bagara, nork idatzi gaitu?

Eszenatokian hiru emakume. Izenik gabekoak, baina helburu garbi batekin datozenak. Beste iruditegi bat sortu nahi dute. Hemen eta orain. Publikoaren aurrean. Horretarako fikzioaren tripetaraino salto egingo dute. Lortuko ote dute ezarritakoa iraultzea??



GAI ARDATZAK

“Unibertsala maskulinoa izateaz nekatuta nago”

Paula Bonet

> Fikzioaren eraikuntza.

Deseraiki dezakegu gizon-emakumeen irudi eta jarrerak eraikitzen dituen fikzioa?

> Maitasun erromantikoa.

Nondik harremantzen gara?

> Ahalduntze prozesuak.

Egitea eskatzen zaigu, ausarta izatea... baina nola ausartu, ausarta izaten erakutsi ez dizutenean?

> Sororitatea.

Sistemak irakatsi digunaren aurka, ahizpatasuna.





FITXA ARTISTIKOA

AKTOREAK/ZUZENDARITZA/TESTUA:

Erika Olaizola, Iraia Elias eta Amancay Gaztañaga.

ZUZENDARI BIDELAGUNA:

Espe Lopez.

JANTZIAK:

Barbara Rasso.

ARGIZTAPEN DISEINUA:

Miriam Ubanet eta Ana Da Graça.

TEKNIKA:

Uhina.

ZUZENeko SOINU BANDA:

Amancay Gaztañaga.

“IZAKI BERRIA” KANTA:

Odei Barroso.

ILUSTRAZIOA ETA KARTELA:

Idoia Beratarbide.

IRUDIGINTZA:

Kulturaz kooperatiba.

BANAKETA:

Goizane Barroso.

EKOIZPENA:

Azpeitiko Kulturaz kooperatiba.

BIOGRAFIAK



Erika Olaizola Eizmendi (1989 Azpeitia)

Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan Errealizazio ikasketak egin ondoren, Donostiako Arte Eszenikoen Eskolan ikasi zuen urtez.

Kamikaz Kolektiboaren sortzaileetako bat, ZULO laburmetraia eta Euli-giro, Käffka eta Panpina antzezlanak sortu, idatzi eta zuzendu ditu kolektiboaren baitan. Artedramak ekoiztutako Francoren bilobari gutuna eta Xake produkzioaren Lur antzezlanean aktore lanak egin ditu.

Roberto Castonen Los tontos y los estúpidos eta Koldo Almandozen Oreina pelikuletan aritu da. Goenkale telesaila eta Kartzela webseriean ere aktore lanak egin ditu.



Iraia Elias Muniain (1980, Zarautz)

1980, Zarautz. Heziketa berezian diplomatua, antzerkiarekiko interesak, etengabe sorkuntzan sakontzera eramán du, bidelagun ezberdinen eskutik. Ttak teatroaren sortzaile eta partaide, Metrokoadroka kolektiboko kide, eta Kamikaz kolektiboarekin elkarlanean, oso molde ezbedineko lanak sortuak ditu. Azken sorkuntzen artean daude esaterako, Andrezaharraren manifestua (Metrokoadroka), Agur eta dolore (kamikaz/Ttak), Matriuska (Kamikaz/Ttak)... Ikusentzunezko lanetan ere jarduna da eta aipatzekoak dira Asier Altunaren Amama (2015) eta Koldo Almandozen Oreina (2017) eta Hondar Ahoak telesaila (2020).



Amancay Gaztañaga Sagarzazu (Guayaquil 1980)

2002 urtean, interpretazioan lizentziatu zen Madrilgo R.E.S.A.D-en (Real Escuela Superior de Arte Dramático).

Antzerki lanetan mundu osoan biran ibili da Lóm Imprebis taldearen Quijote antzezlanarekin. Tanttakarekin Soinu-jolearen semearen munduan galdu da, Iraia Eliasekin Matriuska antzeztzen pasa du azken urtea. Kamikaz Kolektiboaren sortzaileetako bat Miren Gaztañaga eta Erika Olaizolarekin batera. Telebistan hainbat pertsonaia jokatu ditu: Beti Mugan, 3Txulo, Alardea...

Zuzendari gisa ere lan ezberdinak egin ditu, azkena, Artedramaren Atzerrian lurra garratz.



• **Youtuben**

[labur.eus/Kvt3G](https://www.youtube.com/channel/UCv3G)



• **Berrian**

[labur.eus/Nh7Dy](https://www.youtube.com/channel/UCNh7Dy)



• **EITBn**

[labur.eus/1UXM4](https://www.youtube.com/channel/UC1UXM4)



